



PLAN OROKOR BAT EUSKARARENTZAT

Joxe AZURMENDI

Gauza bat da eskoletarako programa bat edo plan bat edukitzea, eta beste bat euskararentzat plan orokorrik edukitzea. Eskolak oso garrantzizkoak dira. Ahaleginak egin beharra daukagu eskoletan, irakasleak euskalduntzen, eskolak ugaritzen, etab. Inork ez du esan, esfera honetan esate baterako ezer egin ez denik.

Baina ez dezagula uste eskoletan bukatzen direnik gure lanak eta premiak. Euskararen plan batetan eskola kapitulu inportante bat, baina bat, besterik ezin izan liteke.

Adinekoak euskalduntzea eta alfabetatzea ere hor dago. Eta inork ez du esan hor ere ezer egin ez denik. HARE zerbait da. Ez dezagula halere HARE adinekoak euskalduntzeko eta alfabetatzeko projektu global batekin konfunditu. Are gutxiago euskarak behar duen plan globalarekin. Projektu merezigarri konkretu txiki bat besterik ez da, egitamu jakin baten muga guztiekin. HARE ez da projektua bera: onenean ere projektuaren barruan medio bat besterik ez.

Prentsaren arazoarekin, adibidez, zerikusirik ez dauka. Prentsak zein leku hartuko duen euskararen indarritzean oso gauza erlatiboa da. Projektu batek agian puntan jarriko luke. Beste batek ez lioke beharbada gehiagi begiratuko. Baina oraingo projektu globalean prentsak zein leku duen, eskolaren aldean, alfabetatze-euskalduntzeko kapituluen aldean, etab., ikusteko gaude oraindik. Eta berdinberdin beste mila gauza.

Alegia, ikusteko gaude oraindik, agintea eta dirua manejatzen ari diren projektu orokorrean literatura (kreazioa), textugintza, haurrentzako ipuingintza, etab., nola baloratzen diren, nola subentzionatzeko asmoa dagoen, hurrengo urteotarako desarrolloa nola programatzen den. Hau da, projektu global hori gaude ikusteko. Ez dago.

Agian, euskararen politika bat eduki ordez, administrazio piska bat besterik ez daukagu. Nik, izan ere, es-

koletarako edo HAREko programa partzialak, orain arteko gauzapenak, gehiago epaituko naituzke administrazio programa bezala, euskarak behar duen projektu politikoa, nazionala bezala baino. Ekonomian, adibidez, energiaren edo arrantzuaren arazoak aparte, uste dut arduradunek projektu ekonomiko global bat ere Euskadirentzat edukiko dutela. Eta hark determinatuko duela azpiko barruti horietan gero nola jokatu. Euskararentzat zergatik ez? Bitartean dena adabaki eta inkoherezia izango da.

Projektu global batek soluzioren bat eman behar dio normalizazioaren arazoari: alfer-alferrik da euskara hizkuntza ofiziala deklaratzeko, gero ezin baldin bada erabaki zein den euskara ofiziala. Hori folklore hutsa da. Projektu politikoa batek planteatu beharra dauka, argi eta garbi, euskalkien arazoa. Batua nahi dugu, bai: baina nola da batura iristeko prozesua Bizkaian?. Nola Gipuzkoan?

Projektu batetan Euskaltzaindiak zeregin handia izan lezake. Beste batetan beharbada Euskaltzaindiarekin apenas kontaktuko litzateke. Eta abar, eta abar. Egin, projektu arras desberdinak egin litezke, denak eztabaidagarriak. Okerrena, ordea, projektu gabe ibiltzea da. Politika gabe, administrazio piska batekin geure buruak engainatuaz.

Horixe da esaten nuena. "Gauzak" egin, egiten dira: euskarazko letrero batzuk ipintzen dira; udaletxeetan itzultzaileak dituzte; eskoletan egiten da zerbait; subentzioren batzuk ematen zaizkio prentsari... Egiten dira "gauza" batzuk, bai. Eskuetako agintearen eta diruaren administrazio piska bat ikusten da. Hain zuzen, projektu bat ez edukitzeak uzten duen zulo ikaragarria ezin beteko duten "gauzaxoak" eta tramite administratiboak. Ez da ikusten, Euskadi euskaldun baten ideia, aspaldiko ideia, projektu bilakatzen hasi denik, hasi ere. Estatutua, etab., badauzkagu, baina ez daukagu euskararen projektu nazional bat.